

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

Arabako Batzar Nagusietan administrari gisa aldi baterako zerbitzuak emateko lan-poltsa bat sortzeko deialdiaren oinarriak

DEIALDIAREN XEDEA

Lan publikoaren azken eskaintza 2010ean izan zenez, administrari lanpostuetarako aldi baterako beharra dagoenez, eta ez dagoenez nahikoa pertsona orduan eratu zen lan-poltsan, deialdi honen xedea da Arabako Batzar Nagusietako behin-behineko langile-beharrizanak betetzeko lan-poltsa bat eratzea, harik eta 2019an hurrengo lan-eskaintza publikoa egin arte.

Lan-poltsen bidez hornitu beharreko lanpostua Lanpostuen Zerrendan jasota daude.

Honako hauek dira ezaugarri orokorrak:

Taldea: C1.

Kategoria: Administraria.

Zerbitzuak emateko lekua: Arabako Batzar Nagusietako Idazkaritza Nagusia, Vitoria-Gasteiz, Vicente Goikoetxea kalea, 2.

Xede-osagarriaren maila: 19.

Osagarri espezifikoak: Batzar Nagusietako Mahaiak onetsitako lanpostuen zerrendan adierazitakoa.

Lanaldia: Batzar Nagusietako Mahaiak Ganberako langileentzako adierazitakoa. Lanpostuak berez dakar zerbitzu-beharrengatiko eskuragarritasun askea.

KUDEAKETA

Lan-poltsaren gestioa egingo da Arabako Batzar Nagusiek ezarrita daukaten araudiaren arabera.

IZANGAIEN BETEKIZUNAK

Hautaketa-prozesuetan parte hartu ahal izango dute Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 56. artikuluan ezarritako betekizun orokorrak betetzen dituzten pertsonak.

Espainiar nazionalitatea izatea, aipatu legearen 57. artikuluan ezarritakoa baztertu gabe.

b) Zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.

c) Hamasei urte bete izatea eta ez izatea, hala badagokio, enplegu publikoa eskuratzeko derrigorrezko erretiroaren gehienezko adina baino gehiago.

d) Diziiplina-espediente batez edozein herri-administrazio edo autonomia-erkidegoko organo konstituzional edo estatutarioen zerbitzutik bereizita ez egotea, ezta, ebazpen judizialaren arabera, enplegu edo kargu publikorako desgaitasuna erabatekoa edo berezia izatea ere, funtzionarioen kidegora edo eskalara iristeko, edo lan-kontratuko langileen kasuan, bereziak edo desgaituak izan diren lanpostuko antzerako eginkizunak betetzeko. Beste Estatu bateko herritarra izanez gero, desgaitua edo egoera baliokidean ez egotea, ezta diziiplina-zehapenik edo baliokiderik ez izatea, dagokion Estatuan baldintza berberetan enplegu publikora iristea eragotziko duenik, hain zuzen.

e) Eskatutako titulazioa izatea.

Betekizun orokorre gain, hautaketa-prozesuan parte hartzeko honako betekizun espezifikoak bete beharko dira:

— Goi mailako batxilergoko edo bigarren graduako lanbide-heziketako titulua edo baliokidea izatea.

— 2. Hizkuntza Eskakizunekoaren pareko euskara-ezagutza egiaztatzea.

— ITTxartelak:

— Word 2010 aurreratua.

— Excel 2010 aurreratua.

— Access 2010.

— Outlook 2010.

— Internet aurreratua.

— Mekanografia.

Betekizun guztiak beteta egon beharko dira eskabideak aurkezteko epea bukatzen denean.

ESKABIDEAK AURKEZTEA

Deialdi honetan parte hartzeko eskatzeko eskabideak Arabako Batzar Nagusietako Mahairi aurkeztu beharko zaizkio eta Arabako Batzar Nagusien erregistroan aurkeztuko dira, bulegoko ordutegian 9:00etatik 15:00etara.

Lehenengo deialdiaren eskabideak aurkezteko epea 10 egun baliodunekoa izango da AB-NAOn argitaratzen denetik aurrera.

Eskabidea egingo da oinarrien I. eranskinaren ereduaren arabera eta erantsiko zaio eskatutako titulazioaren, 2. Hizkuntza Eskakizunaren, ITTxartelen eta baloratu beharreko merituen fotokopia bat.

BATZORDE KALIFIKATZAILEA

Batzorde Kalifikatzailea honela eratuko da:

Lehendakaria: Idazkaritza Nagusiko legelari nagusia.

Kideak: Administrazio publikoetako C taldeko eta goi titulazio duten karrerako bi funtzionario edo haien ordeztutako den karrerako funtzionarioa. Haietako batek idazkari-lanak egingo ditu.

MERITUEN BALORAZIOA

• Puntu 1ez baloratuko da Administrazio Publikoan lanaldi osoan administrari gisa egindako 30 eguneko hilabeteak (lanaldi partzialak lanaldi oso bihurtu aurretik baloratuko dira). Gehienez 10 urte baloratuko dira.

• Euskarazko 3. HE: 24 puntu.

Behin-behineko kalifikazioaren hurrenkera merituen baloratzeko fasean lortutako puntuazioen metaketak zehaztuko du.

Administrazioan emandako zerbitzuak egiaztatzeko: Horretarako ezarrita den ereduaren egiaztagiria. Euskal Autonomia Erkidegoko Foru eta Toki Administrazioan emandako zerbitzuak baliakidetzat joko dira, Euskal Administrazio Publikoen Kidego eta Eskalen arteko baliokidetasuna zehazten duen uztailaren 30eko 208/1990 Dekretuaren arabera.

Deialdi hau ABNAOn argitaratzen den egunera bitarteko emandako zerbitzuak baino ez dira baloratuko. Ez dira inola ere baloratu ahal izango aurkezteko epearen barruan behar bezala alegatu eta egiaztatu ez diren merituak.

Berdinketa gertatuz gero, irizpidea izango da emandako zerbitzuei dagokienez puntuazio handiena izatea, eta hala ere berdinketa balego, alfabetikoki ezarriko da, estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzuko Langileak sartzeko Araudi Orokorraren 17. Artikuluan aipatzen den zozketa publikoaren letra erabiliz, 2018. urterako Ñ letra hain zuzen ere.

AZKEN KALIFIKAZIOA

Argitara emango da onartuen eta baztertuen zerrenda eta balorazioaren emaitzak, behin berdinketak ebatzita, Arabako Batzar Nagusien enplegu publikoaren atarian <http://www.jjggalava.eus>, eta 3 egun baliodun ezarriko dira erreklamazioak egiteko.

Erreklamazioen epea igarota, eta behin erreklamazioak ebatzita, Mahaiak lan-poltsan dauden behin betiko zerrenda eta sailkapena onetsiko du.

Behin-behineko zerrenda automatikoki izango da behin betikoa erreklamaziorik ez balego.

BEHIN BETIKO EMAITZAK ARGITARATZEA

Behin betiko zerrenda azken kalifikazioarekin eta izangaien hurrenkera lan-poltsaren puntuazioen arabera Arabako Batzar Nagusien enplegu publikoaren atarian argitaratuko dira <http://www.jjggalava.eus>.

GORABEHERAK ETA AURKARATZEA

Batzorde Kalifikatzaileak ahalmena izango du sortzen diren zalantzak argitzeko eta oinarrietan aurreikusia ez den guztian behar bezala antolatze behar diren akordio guztiak hartzeko.

Deialdia, oinarriak eta oinarriotatik zein epaimahaien jardunetatik datozen administrazio-egintza guztiak aurka ditzakete interesdunek, betiere, aurriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak jasotako kasu eta moduetan.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko abuztuaren 22a

Presidente

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA